

# DURANGOKO AZOKA 2009

Beste behin ere abenduaren lehenengo asteburuan Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka ospatuko da, eta 44. edizio honetan, laugarren urtez, MusikHerria ere bertan izango da.

Egitasmo herritar gisa jaiotako diskoetxe honetan musika egiteko, ekoizteko eta kontsumitzeko gaur egungo eredutik urruntzeko helburua daukagu, eredu herritarrago batetara hurbilduz.

Bide alternatiboen sakontze horretan lehenak eta bakarrak ez garela jakinik, saiakera horretan jarraitzeko apustu irmoa egiten dugu, musikariz eta musikazalez osatutako proiektu honetan kolektibotasunari indarra emanez.

Laugarren urtez Landako Gunean izango gara, dakigunaren eta egiten duguna aurkeztuz, eta musikari dagokion balio soziala Durangoko Azoka bezalako kultur eremu amankomunean plazaratuz.

Euskal Herriko kulturaren emankortasunaren ispilu bilakatu den azoka honetatik haratago, azpimarratzekoa da MusikHerriaren orain arteko jardunaren emaitza diskografikoa doan eskuratu ahal izateko aukera ere izango dela; MusikHerriaren edozein erreferentzia norberaren memoria eramangarrian eramateko aukera izango du stand-era gerturatzen den edonork, bertan edukiko dugun ordenagailutik interesatzen zaizkion disko guztiak zuzenean hartuz.

Sortzaileen kolektibo bezala Ahotsenea ekimenarekin bat eginez eta inplikatur, hainbat talderen aurkezpenak burutuko ditugu kulturak beharrezkoa duen harreman zuzenari, dagokion protagonismoa emateko asmoz:

## **Abenduak 6, igandea**

- 16:00etan, الحريّة (Hurria), Zein da Zein? eta Siroka.
- 18:30etan, Anger.

# DURANGOKO AZOKARAKO NOBEDADEAK



## IHESI

Junzai Txetxera

MH059 | CD: 4€

10 kantuz osatutako diskoa dugu talde honen lehen proposamena. Taldeak dituen lau urteotan sortutako abesti onenak direla esan genezake. Punkaren inguruan dabilzan kantuek dira denak ere, baxu oinarri sinple baina sendokoak eta gitarra indartsuz babestuak. Ahotsaren melodiari eta koroiei garrantzia handia eman izan diete beti eta hori ere nabaritzen da kantuetan. Hitzei dagokienean, nahiko disko negatiboa dela esan beharko genuke. Orokorrean, bizi dugun sistema kapitalistak gure inguruan dituen eraginei buruz hitz egiten dute.

[www.myspace.com/junzaitxetxera](http://www.myspace.com/junzaitxetxera)  
[junzaitxetxera@euskalherria.org](mailto:junzaitxetxera@euskalherria.org)  
[0034] 662 191 092 (Gotzon)



## الحرية (HURRIA). BI HERRI, IRRINTZI BAT!

Sahara eta Euskal Herriko musikariak

MH060 | CD: 5€

Tinduf-eko saharar errefuxiatu kanpamentuetan bi musikari bidean elkartu ziren, bata sahararra eta bestea euskalduna, eta musika bilduma hau osatzeko lehen ilusioak erein zituzten. Basamortuan izandako hitz haiek ez zituen haizeak eraman, urte bat besterik ez baita pasa geroztik eta esku artean dugu, hasieran ametsa izan zena errealitate bihurtua: Sahara eta Euskal Herriko musika kulturak uztartzen dituen elkartasunezko bilduma. Denetarikoa estiloak: rock, hip hop, saharar musika eta poesia, funky, reggae, hardcore, bakarlariak eta bertsoak.

[inkorta@hotmail.com](mailto:inkorta@hotmail.com)  
[0034] 678 220 675 (Antxu)




## IZATE USTELA

Odolaz Blai

MH061 | CD: 3€

Bigarren disko luzea grabatu bitartean, 4 abestiz osatutako EP bat dakarkigu Enkarterriko hardcore/metal/punk talde honek. Kantuetako bi bilduma ezberdinetan kaleratuko dira. Bata, Sahararen aldeko elkartasun bilduman, eta bestea, Balmasedako gazte asanbladak sustatutako etxebizitza eskubidearen aldeko bilduma batean. Refused talde suediarren abesti baten bertasio euskaratua ere badakar. Abesti bakoitzak errealitatearen alde bati so egiten dio: funtsezko eskubideen urraketa, emakumeek jasaten duten biolentzia, sistema honen errepresioa...

[www.myspace.com/odolaz](http://www.myspace.com/odolaz)  
[odolazblai@gmail.com](mailto:odolazblai@gmail.com)  
[0034] 670 826 338 (Erik)



## SEDUKZIOAZ

Anger

MH062 | CD: 6€

Arrasateko Anger taldeak hamabi urte daramatza erritmo oldarkor eta melodiak uztartuz eta Euskal Herriko gatazkaren nahiz jendartearen inguruko beraien ikuspegia transmitituz. Lau urte pasa dira "Biluztu" izeneko aurreko diskoa kaleratu zutenetik, eta bigarren lan luze honetan, sedukzioaz mintzo dira. Gaur egungo gizarte, ohitura, kontsumo nahiz ezarritako boterearen oinarritzko tresna den sedukzioaz. Musikari dagokionez, erritmo bizi eta melodiak elkar limurtuz talka egiten dute, emaitza diskoa osatzen duten hamar abestietan entzungai dugularik.

[www.angerweb.net](http://www.angerweb.net)

[www.myspace.com/angersarean](http://www.myspace.com/angersarean)

[anger@angerweb.net](mailto:anger@angerweb.net)

[0034] 607 782 401 (Haritz)



## GUZTIOK BAT... EUSKAL RAP! Mixtape Vol.1

121Krew

MH063 | CD: dohainik (Durangoko Azokan soilik)

2010 urtean argitaratuko duten "Hiriaren Taupadak" lanaren aurretik, azkenaldian grabatutako zenbait abesti bildu eta zabaltzea erabaki dute mixtape honen bitartez. Soinuaren aldetik, erabat entzungarria den arren, oso landua ez dagoen lana dugu "Guztiok bat... Euskal Rap! Mixtape Vol.1". Hitzei dagokionez, ordea, Euskal Herrian zehar ezagunak egiten ari diren zenbait abesti agertzen dira, "Gora Baraka, Behera Neguri" kasu. Esan bezala, lan hau mixtape antzera eraiki dute, hau da, pixkanaka ideiak eta abestiak batuz eta irnet-etik hartutako baseak erabiliz (Maisharen "Introa" izan ezik).

[www.myspace.com/121krewhiphop](http://www.myspace.com/121krewhiphop)

[121krew@gmail.com](mailto:121krew@gmail.com)

[0034] 627 442 754 (Endika)



## HAIZE BERRIAK

Siroka

MH064 | CD: 3€

Siroka taldearen lehenengo lana izanik, diskoak berak zehaztu du taldearen estiloa. Mariaren ahots indartsuaren melodia erritmo dantzagarriekin osatzen da. Emaitza bezala, konplexutasun gutxirekin osatutako disko alai eta bizi lortu da. Zazpi abestiko diskoa da eta diskoaren aurkezpen gisa, Habanera doinuarekin Jone Uria bertsolariak abestu eta ekoiztutako bertsoa entzun daiteke. Euskal Herria oinarri, filosofia eta politikaren alor desberdinak jorratzen dira abestien testuetan, zentsurarik eta bidezidorrik gabe.

[sirokataldea.blogspot.com](http://sirokataldea.blogspot.com)

[www.myspace.com/sirokataldea](http://www.myspace.com/sirokataldea)

[sirokataldea@gmail.com](mailto:sirokataldea@gmail.com)

[0034] 688 643 426 (Maria)



## **ZEIN DA ZEIN?**

**Zein da Zein?**

**MH065 | CD: 5€**

Taldearen lehenengo disko hau indarrez betetako 10 kantuz osatuta dago. Rock, rap eta metal doinuez jorratutako 10 istorio, 10 bizipen, 10 oroitzapen biltzen ditu, errealitate gordina islatu eta salatzen nahiaz, etsaiari maskara kentzeko asmoz, baina beraiena ere kentzen duten bitartean, diskoaz disko biluzten joateko asmoarekin...

[www.myspace.com/zeindazeintaldea](http://www.myspace.com/zeindazeintaldea)  
[zeindazeintaldea@gmail.com](mailto:zeindazeintaldea@gmail.com)  
[0034] 627 397 114 (Gorka)



## **ZUBIAK APURTZEN**

**Ekintza Gazte Asanblada**

**MH066 | CD: 5€**

Balmasedako Ekintza Gazte Asanbladak etxebizitza eskubidearen aldeko borroka aurrera darama hainbat urtetik hona, eta puntu honetara helduz, herriko sei musika taldeekin batera musika bilduma ateratzea erabaki dute. Elkarlana oinarri izanda, eskubide honen urraketa salaketan pauso handiago bat eman dute. Bilduma honetan Odolaz Blai, Los Huevos de Kinder, Llenos de Rápida, Siroka eta Irauli taldeek parte hartu dute.

[0034] 670 826 338 (Erik)

# 2009ko UZTA



## GUDARAKO GARRA

Odolaz Blai

MH049 | CD: 5€

Musikaren estiloa jarkorea, metal eta punkaren arteko nahasketa bezala defini dezakegu. Erreferentzia gisa Anestesia, Kuraia, El Corazon del Sapo, Sick of it all, Refused, Ratos de Porao, RKL, Inadaptats, Red Tape, BAP!!, Machine Head, KOP, JAN, Hoods, Rise Against edo Strike Anywhere bezalako taldeak dituzte. Abestien letretan inposatuta daukagun sistema kapitalistaren inguruan aritzen dira, horren aurka borrokatzera deituz. Euskal Herrian bizi dugun egoeratik hasita, presoen eskubideen urraketatara, komunikabideen manipulaziotik pasatuz. Beste hitz batzuk pertsonalagoak dira: gaur egun ezagutzen dugun maitasunaren kontzeptuaren inguruan, bizitzan agertzen diren traba eta oztopoei buruzkoak... Horrez gain, disko honetan bertsoio bat ere agertzen da: Anestesia taldearen "begi bat" abestia.



## HESIAREN BESTE ALDEAN

Norte Apache

MH051 | CD: 5€

Disko honek bederatzi abesti biltzen ditu, hasieratik bukaera arte hesiak gainditzeari buruz hitz egiten dutenak. Euren dioten bezala, "hesi fisikoak, heriotza, sentimenak, herrialdeen hesiak, hizkuntzen hesiak... gure mugak gainditu behar ditugu ametsak gauzatzeko eta libre izateko, maitatzeko, garenak izateko...". Rap freskoa eta berritzailea egiten dute, euskazko raparen kimu berriak. Taldearen ustez, "hitzarekin borrokatzen duenak, sentimenak askatu eta egiak ozenki esaten ditu". Bizitzari "eutsi goiari!" esaldiari bezala heltzen diote, bertso txukun eta gogorak, esaldi biziak, eta mezu positibo bat: elkartasuna eta begirunea, baikortasuna.



## RIFTER

Rifter

MH055 | CD: 4€

Taldearen lehenengo maketa zazpi abesti eta bideo muntai batek osatzen dute. Abesti bakoitza ezberdina da estiloari dagokionez, baina musika indartsua jorratzen dutela esan dezakegu, rock eta metal doinuak batzen dituenak. Erreferentzia asko daukate, estilo anitzekoak: Habeas Corpus, Berri Txarrak, Rage Against The Machine, Flitter, AC/DC, Koma... Disko hau osatzen duten musika zein hitz guztiak Rifter taldearenak dira, bi letra izan ezik: "Anti..." eta "Ya estamos aquí". Letra hauetan agur eguneko injustiziak salatzen dituzte, bai alor sozialean zein politikoan edo ekonomikoan. Azken finean, abestien hitzetan gazte hauen pentsamoldeak ikus ditzakegu.




## IZATEKO JAIKOK

**Txurrustada**

**MH056 | CD: 6€**

Punk, rock eta ska doinuaz jositako diskoa dugu hau, doinu alaiak beteta, beti ere munduko eta Euskal Herriko egoerari erreparatzeari utzi gabe. Hamar abestitan zehar, mota guztietako gaiak jorratzen dituzte: egungo munduaren egoera, munduko desoreka, Euskal Herriko gatazka politikoa, herri kultura... Hala ere, barneko sentipenik sakonenei ere kanta pare bat eskeini dizkiete, beti ere modu ez hain zuzenean.




## MENÚ DEL DÍA

**Garagardo Gura**

**MH057 | CD: 5€**

Gaur egungo musika ulertzeko modu berri eta interesgarria; aurkakoak diruditen estiloen bilgune berezi moduan aurkezten zaigu disko hau: ska fresko eta dantzagarrietik doinu latinoetara, funky metal zein reggae erritmoetatik pasatuz. Gaur egungo gaiak ikuspuntu ezberdin batetik jorratu nahian, disko honek soinu unibertso sakonetan barrena bidaiarazten gaitu hurrengo abestian zer jasoko dugun jakin ezinean. Abestien hitzetan denetariko gaiak lantzen dituzte, gai orokorrak zein pertsonalagoak: munduko bidegabekeriaren salaketa, heroina eta droga berriak, musika eta kultura ulertzeko modua, cannabisaren legalizazioa, 1936ko gerra zibila, homosexualitatea...



**2**

**Kasu!**

**MH058 | CD: 5€**

Diskoa 15 kanta ezberdinek osatzen dute, gehienbat gai politiko-sozialak ikuspuntu pertsonaletatik. Kanta oso ezberdinak bata bestearengandik, swing zatietatik metal-rap zatietara, melodiari lekua eginez beste zenbaitetan. Eraginak: R-zetak, Na Tua Man, Seihots, Nekez, RPV, Negu Gorriak, Rage Against The Machine... eta milaka! Bertsiotik ere tartekatuta dute diskoan: Maite Idirinek kantatzen zuen "Nere aitaren etxea" (Arestirene olerki musikatua), Ezpatadantza antzeko erritmo batera moldatuz (6/8 3/4 konpasa). 100% Kasu! da disko hau, ia kanpoko laguntzarik gabe egingina, taldeak azken urtean bizi izan dituen momentu zailak eta politikak barnebiltzen dituenak.

durangoko azokan...



ekarri zure memoria  
eramangarria  
musikherriaren stand-era  
eta eskuratu nahi duzun  
cda doan!

**MUSIKHERRIA**  
HERRI DISKOETXEA

**MUSIKHERRIA**  
HERRI DISKOETXEA

web: [www.musikherria.org](http://www.musikherria.org)  
e-posta: [info@musikherria.org](mailto:info@musikherria.org)  
tel: [0034] 695 199 619